

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Abendualdiko 3. Igandea

2009 Abenduak 13 (C urtea)

Patxi Otamendi

Sofonias 3, 14-18a

Filipoarrei 4, 4-7

Lukas 3,10-18

- *Zer egin behar dugu bada?*” galdetzen zion jendeak Joani. Sarritan profeten mintzoa errefusatua izan bazen, hemen jendeak ez du atzera egiten. Erakargarri iruditzen zaie Joanek proposatzen diena.

Erronka bat zuzentzen zien, eta jendeak ez zekien ideal hura eskura ahal zezakeen. Horrelako galdera ohikoan pizten zaio kristau jarraitzaileari, batez ere Jainkoaren Espiritua eztenkatzen ari zaionean. Jainkoaren Erakargarritasunak eraginak bihotz gogortasunak pitzatzen dituzte, gehiago edo hobeto ekin nahi izaten du sinesmenean abiatu denak.

- Ondoren zergalari batzuk hurbiltzen zaizkio. Hauek ere galdera berdina dakarte. Dakigunez, garai eta giro hartan gaizkile bezala ikusitako jendeak ziren zergalariak. Hauei erantzun desberdina ematen die, beren eginkizunei egokitua. Diru kontutan zintzotasuna eskatzen die. Gaurkotasun handiko agindu etikoa. Gainera, oinarrizkoa. Oso antzekoa eskatzen die gerturatutako soldadu batzuei. Finean, Joanek eskatzen duena ez da ideal hutsa.
- *“Herria zain-zain zegoen”*. Joanen jardunak jendeagan harridura suspertua zuen. Ez zekiten Mesias ote zen. Joanek berak argitzen die nor den.
- *“Badator”*. Aldaketa hastear dago, eta hautatu beharra dago. Bataiatzaileak esaten die etortzeko denari oinetakoen lokarriak askatzeko baino ez dela sentitzen. Oinetakoak lotu eta askatzea eguneroko zeregina zen. Baita publiko aurrean egin zitekeen ekintzarik apalena.
- *“Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte”*. Mateok eta Lukasek batean aipatzen dituzte Espiritua eta sua. Sagar biziko Espiritu batek bizkortuko gaitu. Beraz, Jainko Biziaren Espirituak bizitasuna eta berrikuntza ekarriko digu. Sinesmen bilaketan eta maitasunean etengabe kemendu eta sasoi-tuko gaituena.
- *“Eskuan du sardea”*. Zer den lasto eta zer alea bereiziz, lastoa sutan erreko da. Sua epailetzaren sinboloa da. Alegia, hedatzen ari den mezua zorrotza bilakatuko dela ohartarazi nahi zaie entzuleei Ebanjelioan zehar, hainbat parablek ongia eta gaizkia kontrajarriko dituzte. Kristok argi utziko du zer dabilen Jainkoaren bidetik eta zer aurkakotik. Eta horrek sailkatuko du nork gauzatzen duen sinesmena eta nork ez duen sinesmenari lotutako bizierarik bizi. Hau da, ekintzen arabera izango da norbera balioztatua. Bukatu dira bereizketa kultural eta erlijiosoak.
- *“Hone la eta beste burubide askoren bidez adierazten zion berri ona herriari”*. Iragartzen zaigun bereizketa zorrotza, egokia ote da? Behintzat beharrezkoa dirudi onbideak eta okerbideak sailkatzea.
Azken hitzak diosku hau guztia “herriari” zuzendutako mezua zela, eta ez soilik farisear eta saduzearrei. Pentsamolde biblikoan “herria” esaldiak “jende multzoa” baino esanahi hobea da. “Herriak” egituratua eta birgaitua esan nahi baitzuen.
Bataioaz geu ere Jainkoagan sustraitu garen herria gara. Behar dugun aldaketa Espirituak eta Kristok gudan sortuko du, etaugarrezkoa bezala izango da. Baina ez da soilik maila erlijiosokoa izango.